

«Kontsumitzen den janaria
halako bi botatzen da munduan»



DENIS
UGALDE GÓMEZ
Oreka proiektuaren sortzailea

hiruka



118. zenbakia
2018ko martxoaren 1etik 8ra arte



LEIOAKO HERRI UNIBERTSITATEA | 6
**HEZKUNTZA-EREDU
PROPIOAREN ALDE**

Martxoaren 5etik 7ra arte Herri Unibertsitatea egingo dute EHUko Leioako campusean; askotariko gaiak jorratuko dituzte.

JONE OLIBAN ARRAUNLARIA | 13
**SORTU DA EMAKUMEEN
TRAINERUEN ELKARTEA**

Hasieratik Euskotren Ligan jardun du Olibanek. Erbestera jo zuen, Bizkaia traineru desagertuta. Etxera bueltatuko da, elkarteagaz.

EHU-RAKO TRANBIA | 7
**PROIEKTUA GELDITZEA
ERABAKI DUTE**

Metro-geltokia eta campusa lotzeko beste alternatiba batzuk aztertuko dituzte, besteak beste, herritarren oniritzia lortzeko.

Adi!
Greba feminista dela-eta, datorren astean barikuan kaleratuko dugu HIRUKA.

STOCKEUSKADI
BILBAO EXHIBITION CENTRE
IPARRALDEKO OUTLET HANDIENA
MARTXOAK 2,3 eta 4
11:00etatik 21:00ak arte
GURE APP-a JAITSI ORAIN
ESKAITZAK, OPARIAK, SARRERAK eta gora gorriago
ANDROID APP ON Google play | COMPARTEN EN App Store
www.stockeuskadi.com

BRUNO MAGLI | adidas | B | CALVIN KLEIN | DIESEL | HILFINGER DENIM | LOUIS VUITTON | NIKE | PINKO | THE NORTH FACE | TIGER

Planto, nor izateko

Datorren eguenean Euskal Herriko lehenengo greba feminista egingo da, Emakumeok, planto! goiburupean. Ezohiko greba horretan, produkzioa ez ezik, kontsumo, hezkuntza eta zaintza ere jorratuko dituzte, ekonomiaren erdian bizitza ipintzeko.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA
ARGAZKIA: FRED W. MCDARRAH

Mundu-mailako greba izango da martxoaren 8koa. Iaz Argentinan sustatu eta 70 herrialde baino gehiagotara hedatu zen Emakumeen Munduko Lanuztea. Eragile feministek nazioarteko emakumeen grebarako deialdia zabaldu zuten, *Bizirik egon nahi dugu* goiburupean. Gaur egungo mundua salatu zuten, emakumeen kontrako indarkeria eta desberdintasun mota asko eragiten duela sinetsita. Aurtun, berriz, 177 herrialde-tara ailegatuko da protesta, tartean Euskal Herrira. «Lehenengo aldia izango da, baina uste dut historikoa izango dela», iragarri du Malen Lejonagoitia Garmendiak. Ahiztak Sopelako talde feministako kidea greba antolatzen dabil Uribe Kostan, eskualdeko koordinadora feministaren barruan.

EMAKUMEAK GELDITUZ GERO... Grebaren bidez, mugimendu feministak agerian utzi gura du emakume barik herrialdea gelditu egingo litzatekeela. Iritzi horretakoa da Mainer Barañano Uribarri. Haziak Algortako gazte feministen taldekideak nabarmendu du orain arteko grebak baliabidea izan direla lan-munduan, soldatapeko lanen eremuan, eta greba honegatz, berriz, gure dena

«emakumeok zenbat lan egiten dugun irudikatzea» dela, «soldatapeko lanetan eta soldatapeko lan horietatik kanpo ere, eta greba hau eginez emakumeak geldituko bagara mundua zelan geldituko den».

ZER DA LANA? Lejonagoitia bat dator Barañanoren planteamenduagaz. Greba erabili gura dute garrantzia emateko soldatapekoa ez den lanari. «Badirudi hori egin beharra dagoela, tokatu zaigulako, emakumeak garelako, baina ez da horrela. Gu pertsonak gara, denok legez. Eta behar hori lana da, eta denbora kentzen digu. Hori ikusarazi gura dugu».

Pauso bat harago doa Uxune Iriondo Urbistazu Bilgune Feministako kide gertoxtarra: «Gezurrezko berdintasun baten mezuagaz nahi gaituzte berriz alboratu, sinetsaraziz gura duguna ikasten dugula, lana eginez aukerak dauzkagula lanpostu berdina edo diru-kopuru berdina izateko, baina soldata-arrakala handia da; emakume asko alarguntzen direnean, bizitza osoan doan egindako lan dena... Betidanik emakumeena izandako lan horrek ez dauka pentsiorik eta hori bizi arteko egoera da, eta sistemari berdina zaio. Gaur egun zer gertatzen da zain-



tzaren tranpagaz eta baliabideakaz, lan-ordutegiakaz eta soldatakaz? Sistema oso txar to dabil portatzen emakumeakaz; oinarrizko bizitzaren sostenguak gure gainean segitzen du, izan gazte edo zahar. Hori hautsi egin beharra dago». Iriondoren ustean, belaunaldi denak konturatzen direnean emakume izateak batzen dituela eta fronte bat egin behar dutela, euren elkartasuna lantzen, benetako aurrerapausoak emango dituzte.

Hala, dirua beharrean bizitza erdian ipintzea eskatzen du militante feministak. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen du enplegu eta bizitza duinak pertsona denei bermatzea. Horren ordez, salatu du morrontza eta beti besteentzat lanean ibiltzea eskaintzen die la sistemak. Gainera, «beti eder egotea eskatzen zaigu, eta tranpa piloa ipintzen digute geure burua ez maitatzeko. Burua bakarrik ez, gure gorputzek mila min bizi dute bizitza osoan eta guk eskubidea daukagu gure gorputzetan zorionsuak izateko», aldarrikatu du. Baina Gaur egun, deitoratu duenez, «hiltzen gaituzte, bortxatzen gaituzte, iraintzen gaituzte, zapaltzen gaituzte, erabiltzen gaituzte... eta horren guztiaren kontra altxatu behar dugu».

ALTERNATIBA FEMINISTAREN BIDEAN. Horren aurrean, alternatiba feminista irudikatzen du Iriondok: «Emakumeen arteko batasunak bide bat eman behar digu gizonezkoen erakusteko euren ereduak gerra, gosea, borroka... besterik ez digula eman. Guk ere eduki behar ditugu eskubidea eta aukera erakusteko beste mundu bat posible dela: lurra eta baliabideak zaintzea, gauzengatik ez borrokatzea, emakumeok sarea osatzea... Ba-

Martxoaren 8ko ekitaldien agenda

Grebak eta lanuzteak.

CNTk eta CGTk egun osoko grebara deitu dute; euskal gehiengo sindikalak, lanuzteetara (11:00-15:00 eta 18:00-22:00), baita CCOOk eta UGTk ere (11:30-13:30 eta 16:00-18:00).

07:30 Areetako Bizkaiko Zubian.

Ezkerraldeko andreen lana ikusaraziko dute.

12:00 Algortako Telletxe plazan.

Eskualdeko protesta.

12:00 Erandioko Irailaren 23a plazan.

Ekitaldia eta martxa Eskuen Lorategiraino.

12:00 Sopelako udaletxean.

Itzarturen elkarretaratzea.

20:00 Bilboko Jesusen Bihotzean.

Bizkaiko manifestazioa.

karrik utzi gaituztenean altxatu egin ditugu herriak, barbarako gizonezkoak gerran egon direnean. Aitortza hori merezi dugu. Utzi zaigunean jakin izan dugu munduari buelta ematen. Mundu honi baten batek eman behar dio buelta eta emakumeok ez bagara izango, munduak ez dauka alternatibarik», adierazi du getxoztarrak. Izan ere, eguneko grebak helburu asko ditu: indarkeria matxista eta sistema patriarkala salatzea, eta emakumeek jasan behar dituzten zamak ikusaraztea, besteak beste.

BESTE EREDU BAT. Herriz herri antolatutako ekintzakaz osatuko dituzte martxoaren 8ko deialdi nagusiak. Lejona goitia pozik dago erabili duten ereduagaz: «Antolakuntza oso asanblearioa eta oso horizontala izan da». Herri bakoitzean antolatu eta gero eskualdean batu dira. Goizean goiz hasiko dira mobilizazioak, tartean Bizkaiko Zubian. Eguerdian ere eskualdean izango dira protestak. Iluntzean, ostera, Bilboko manifestaziora joateko deia egin dute. Mobilizazio hori «kolosala eta gehiago» izango dela uste du Iriondok.

Mobilizazioak ia sindikatu denen babesa dauka, greba-deialdien edo lanuzteen bidez. Alderdi politikoen artean, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek bat egin dute grebagaz eta PSE-EEK babestu ditu UGTk eta CCOOk deitutako lanuzteak. Emakunde ere grebalarrien aldarrikapenen alde agertu da.

Bestalde, mugimendu feministak argi utzi du «emakume» berba erabili dutela artikulazio politikorako baliagarria delakoan, baina genero-sistema bitarra gaintzen dutenak (bollerak, transexualak, eta abar) grebaren protagonista ere badirela. ◀

M-8ko greba feministarako gida, emakumeentzat eta gizonentzat

Emakumezkoek grebagaz bat egiteko jarraibideak:

- Lantokietan eta ikasgeletan lanuzteetara batzea.
- Mobilizazioetara joatea.
- Amantala edo beste edozein tresna balkoitik eskegitzea, zaintza-lanak azaleratzeko.
- Kontsumitzeari uztea, «batez ere langileen esplotazioaren ikur diren enpresa handietan, objektutzat hartzen gaituztenak».
- Greba zabaltzea eta antolaketan parte hartzea.
- Zaintzeari uztea, behar hori beste emakumeen esku utzi barik.
- Besoko morea jantzita eroatea.

Gizonezkoek greba egunean egin ditzaketen ekarpenak:

- Gizonei lanuzteetan parte ez hartzeko eskatu die mugimendu feministak. Helburuetako bat da emakumeek ekonomian duten pisua erakustea, gizonek emakumeek egin ohi dituzten beharrak egiteagaz batera. Gizonek ekarpenak egin ditzakete:
- Seme-alabak zaintzea.
- Greba egingo duen emakumeren baten laguna izanez gero, euren burua eskaintzea umeak zaintzeko.
- Euren burua eskaintzea emakumezko lankideen lana egiteko.
- Lanean erantzukizunak dauzkatenez greba egiteko oztoporik ez ipintzea.
- Ikaskidea izatekotan, babesa erakustea deialdiari eta grebagaz bat egingo duten emakume ikaskideei.
- Irakaslea izanez gero, ikasle-zerrenda ez irakurtzea, joango ez direnen falta «justifikatuta baitago».
- Familian norbaitek zaintzak behar baditu, eta andre batek eman ohi badizkio, lan hori egiten hastea.
- Emakume batez sexu-maitasun harremana edukitzekotan, hari greba egitea erraztea.
- Komunikabide batean lan eginez gero, andreek ematea greba egunaren eta manifestazioen berri.
- Elkarretaratze batera joatekotan, entzutea, protagonista ez izatea eta agindurik ez ematea. «Emakumeak dira protagonistak».



GETXO | Sea Shepherd talde ekologista

Bob Barker Getxoko portuan

Sea Shepherd nazioarteko talde ekologista Getxoko gurutze-ontzien terminalean egongo da martxoaren 1etik (eguna). Euren bandera-ontzian helduko dira gurera: *Bob Barker*. Zapatuan eta domekan barkua bisitatu ahal izango da, 10:00etatik 17:00etara. Itsasoaren defentsaren alde behar egiten duen nazioarteko taldea da Sea Shepherd. Mugimenduak daukan flotaren itsasontzirik garrantzitsuenetarikoa da *Bob Barker*, eta Iberiar penintsulan porturatzen den lehenengo aldia izango da oraingoa. Ontzi ezagunak itsasoa eta bertako animaliak babesteko ekintza zuzen eta ez-bortitzak egiten ditu, eta historiako itsas-jarraipen luzeenaren errekorra dauka: Antartidan legez kanpo zebilen *Thunder* arrantza-ontzi piratari jarraitu zion, 20.000 kilometroz; Interpol ere hura harrapatu guran zebilen. *Bob Barker* ontzian Sea Shepherd Globaleko arduradunak etorriko dira. Hemen dauden bitartean hainbat jardura egingo dituzte, Bilboko Itsas Museogaz eta Getxoko Udaleko Ingurumen Sailagaz elkarlanean. Besteak beste, joan den azaroaren 24an Zarautzeko hondartzan lehorreratu zen balea-kume bat salbatu zuten sei surflariak omenduko dituzte hilaren 2an, 22:00etan, Bilboko Itsasadarra Itsas Museon.



© SEA SHEPHERD
Bob Barker beste ontzi bati erasotzen.

GETXO | Euskaraldia

Hiztunak aktibatzeke

Norbanako, erakunde publiko zein pribatu eta gizarte eragileen elkarlanetik eta aniztasunetik antolatuko dute aurten, lehenengoz, Euskaraldia.

IKER RINCON MORENO ▶

Udalerrian euskal hiztunak aktibatu eta euskararen aldeko inertzia positibo berriak sortzeko bilera ireki bi antolatu dituzte Bizarra Lepoan eta Egizu euskara elkarteek, Getxoko Udalgaz batera. Hirurak Euskaraldia ekimena sustatzen ari dira udalerrian. Lehenengo hiztordua martxoaren 1ean, eguenean, izango da, 19:00etan, Romoko Kultur Etxean. Bigarrena, aldiz, martxoaren 6an, martitzenean, Martikoena kaleko 12 zenbakian, 19:00etan ere bai. Horieta bietan, datorren maiatzaren 24an egingo duten «Egingo al dugu Getxon 24 ordu euskaraz?» egitasmoaz jardungo dute. Ondoren, azaroaren akabuan, «11 egun euskaraz» jardura antolatu gura dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, ekimenaren antolakuntzaz eta euskal hiztunak aktibatzeke jolasaz berba egiteko bilera irekiak izango dira aipatutako biak.

Bestalde, bileretan getxoztarrak.eus webgunea sendotzeko urratsak ematera animatuko dute antolatzaileek. Interneteko atari hori Getxoko euskal hiztunen komunitate digitala sustatzeko ekimena da, eta horretan izena emateko gonbita egingo diete bilera-tara doazen gizon-emakumeei. Horren helburua da, besteak beste, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den «11 egun euskaraz» ekimenean parte hartu gura dutenen arteko sarea sortzea. Modu berean, pertsona bakoitzak erronka horretan hartuko duen jarrera zehazten joango dira webgunearen bitartez. Norberak konpromiso bana hartuko du, «ahobizi», «belarriprest» edo «irri-



Getxoko kideek ere parte hartu zuten Donostian egindako aurkezpenean. © EUSKARALDIA

Webgune berria
Getxoko euskal hiztunen sarea osatzeko webgunea sortu dute: getxoztarrak.eus

Erabilera gora
Erronka egin duten herrietan euskararen erabilera areagotu egin da, Lasarten, besteak beste.

bizi». Hala, webgunea komunikazio-tresna bizkor eta bizia izatea gura dute ekimeneko antolatzaileek, «ekitaldien nondik norakoak azaltzeko eta aktibazio sozialerako prestaketa areagotzeko».

AURRETIKO ESPERIENTZIAK. Orain arte mota horretako ekimenak egin dituzten hainbat herriren esperientziak ezagutaraziko dituzte apirilaren 24an, martitzenean. Horretarako, Lasarteko Ttakun Euskara Elkarte, Derioko Tximintx Euskara Elkarte eta Udala, eta Aguraingo Olbea Euskara Elkarte etorriko dira gurera; lekua oraindino zehazteke dago.

Lasarteko esperientziaren arabera, euskararen erabilera gora egin du mota horretako ekimena egin ondoren: erronka hasi aurretik %62,4k egiten zuen euskaraz; erronka amaitu berriant, aldiz, %83,8k, eta handik hiru hilabetera %81,3k. ◀

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

Areeta
Leioa Berrango Sopela

Kalitatea
ERASMUS+

BAI

Guarderia

Innovación

Auzolana

Algorita

Berrikuntza

KIVA

Oui

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

Irunbat
galp energia

Martitzen eta zapatuetan
ESKAINITZA BEREZIA

Loiola Ander Deuna, 74 · 946 764 625 · www.irunbat.net

8/9/10

MARTXOA
MARZO

GETXO

IZAKINEN AMAIERAKO MERKATUA • MERCADO DE SALDOS

LOS COMERCIOS DE GETXO SACAN SUS PRODUCTOS A LA CALLE
GETXOKO DENDEK KALERA ATERAKO DITUZTE BERE PRODUKTUAK

—  —
2018

EURIA EGINEZ GERO | EN CASO DE LLUVIA

Azoka martxoaren 12ra eta 13ra luzatuko litzateke
El mercado se prolongará los días 12 y 13 de marzo



Getxo
bizi ezazu



PARTE-HARTZAILEAK
PARTICIPANTES

www.getxo.eus/getxolan

LEIOAKO CAMPUSA | Herri Unibertsitatea

Unibertsitario kritikoak, altxa!

Egitarau osoko ekitaldietako batzuk

Martxoak 5, astelehena

10:30
Batukada, Mikel Laboa plazatik.
11:30-13:30
Herri Unibertsitateari sarrera bat.
14:00
Bazkaria: mahai-tresnak eroan.
15:30-17:00
• Otxarkoaga: kriminala ala kriminalizatua (Gizarte-hezkuntza).
• Serigrafia-tailerra (Arte Ederrak).
• NBERen eraginkortasuna: Ruandako genozidioa (Zuzenbide).
17:30-19:00
Mugarik gabeko euskara osasun arretan (Osasungintza).
19:30-21:00
Bertsolaritzara sarrera, bideogintza, zumba eta zaintza-tailerra (ez mistoa).
21:00
Afaría, itxialdia, kontzertua eta gehiago...

Martxoak 6, martitzena

09:00
Gosaria: mahai-tresnak eta jatekoa eroan.
10:00-12:00
• Eskolen ghetifikazioa (Hezkuntza).
• Espetxeak, osasuna ote? (Osasungintza).
12:00-14:00
• Adierazpen-askatasuna (Komunikazioa).
• Nola defendatu zure lan-eskubideak kontratuan? (Zuzenbide).
14:00
Bazkaria: mahai-tresnak: etxetik eroan.
15:30-17:00
Ongi Etorri Errefuxiatuak (aurkezpena), ZAD eta Langile Autodefentsa Sarea.
17:30-19:00
- Okupazioa: Gurutze Gorria eta jabetza kolektiboa eztabaidagai.
• Errepresioa klase borrokan.
• Brigaden aurkezpena (Askapena).
19:30-21:00
• Autodefentsa.
• Gorputz- eta emozio-adierazpena.
21:00
Afaría, itxialdia eta mikro irekia.

Martxoak 7, eguaztena

10:00-12:00
• Nor gara zientzian? Ikasleak uhinetan (Zientziherria).
• Ziklikotasunean gu: hilekoaren zikloa (Osasungintza).
• Soziologiako eta politikako talde kritikoaz hausnartzen (Gizarte-zientziak).
• Komunikazioko talde kritikoaz hausnartzen (Komunikazio-zientziak).
• Arte Ederretako talde kritikoaz hausnartzen (Arte Ederrak).
12:30
Manifestazioa eta itxiera-ekitaldia.



INFO+

QR hau eskaneatu egitarau osoa irakurtzeko



Halakorik oraindik ez dagoen fakultateetan talde kritikoak sortzeko baldintzak garatu gura dituzte aurten. HERRI UNIBERTSITATEA

Martxoaren 5etik 7ra arte, Leioako Herri Unibertsitatea egingo dute EHUKo Bizkaiko campusean. Hilaren 14an eta 15ean, Nazio Herri Unibertsitatea izango da, Ibaetan, Donostian.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Orain dela bost urte finkatutako helburuei eusten ahaleginduko da aurten ere Herri Unibertsitatea: «Gure hezkuntza-eredu propioa diseinatzea eta hori praktikara erroten saiatzea», Ikasle Mugimenduko kideek adierazi dutenez. «Gure diogunean, Euskal Herriko zapalduoz ari gara; hau da, langile klaseaz, bizitzeko beharrezkoak ditugun baliabideak lortzeko euren lan-indarra saltzera kondenatuta daudenez», zehaztu dute antolatzaileek. Hala, zapalduak euren egoeraren jakitun egin eta hura errotik aldatzeko beharrezkoak diren ikasketak eta jakintzak landuko dituzte Leioako Herri Unibertsitatean, martxoaren 5etik 7ra arte.

TALDE KRITIKOAK. Bost urte hauetan lortutakoen artean, Euskal Herriko hainbat ikastegitan egindako Herri Unibertsitateko edizioei esker sortutako talde kritiko denak eta horiek egiten duten lana goraiatu dute

sustatzaileek. «Ikasleengan sortu duten mobilizazio gaitasuna eta kontzientzia kritikoak» azpimarratu dituzte.

Besteak beste, Leioako Herri Unibertsitatean lekua egongo da bertan jardunean dauden talde kritikoak eta euren planteamenduak indartzeko, alde batetik. Bestetik, talde kritikorik ez dagoen fakultateetan, diziplina eta karrera bakoitzari dagokion eduki kritikoak plazaratzeko erabili gura dute ekimena; aurrerago talde horiek eratzeko baldintzak garatzeko asmoz. Horregaz lotuta, astelehen arrastian, martitzen goizean eta eguazten goizaren zati batean, diziplinaka eta karreraka banatuko dira ikasleak, bakoitzaren gradua ikuspegi kritiko batetik lantzeko asmoz. Martitzen arrastiari eta eguazten goizaren beste zatiari dagokienez, saio orokorrak egingo dituzte: okupazioa, internazionalismoa, errepresioa, gorputz-adierazpena...

URTE OSOKO LANKETA. Talde kritikoek betetzen duten funtzioa «oinarrizkoa» da, Herri Unibertsitatearen antolatzaileen berbetan; izan ere, euren jarduna ez da hiru egun horietara mugatzen: urte osoko lanketa egiten dute. «Eskoletan jasotzen ditugun edukiak kritikatu ostean, gure hezkuntza-eredu propioa eraikitzen pasatzen dira; gure mesedetarako jakintza ekoiztea da euren helburua», Ikasle Mugimenduko kideek diotenez. ◀

EHugaz arazoak

Azken urte bietan ikasleak Ertzaintzaren laguntzaz kanporatu egin dituzte bertoko agintariak, San Mameseko fakultatean. Iaz, hutsaraztea eragotzi guran, teilatura igo ziren neska-mutilak. Hala ere, kanporatu egin zituzten, ertzainek berrehun lagunetik gora identifikatu ostean.

LEIOA | EHUrako tranbia

Proiektua gelditzea adostu dute

Metro-geltokia eta campusa lotzeko beste alternatiba batzuk aztertuko dituzte, errentagarritasuna eta herritarren oniritzia lortzeko.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Sabino Arana kalea oinezkoentzat egitea onartu zuen Leioako Udalbatzak otsailaren 22ko osoko bilkuran. Hain zuzen ere, horretarako beharrezkoa den erreforma tranbiaren plataforma barik egitea adostu zuten udal-alderdiek. Aurreko egunean garraio hori izan zen berabide Eusko Legebiltzarreko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Batzordean. Bilkura horretan tranbiaren proiektua atzeratzea adostu zuten: EAJk eta PSE-EEk alde bozkatu zuten, EH Bildu eta Ahal Dugu abstenitu egin ziren, eta PPk aurkako botoa eman zuen. Tranbiaren proiektuagaz zer egin erabakitzen duten artean, garraio bide publikoko beste alternatiba batzuk aztertuko ditu Eusko Jaurlaritzak: Leioako metro-geltokiaren eta EHuko campusaren arteko lotura ekonomikoki errentagarriagoa izatea eta herritarren onarpen handiagoa egotea dira helburuak; izan ere, 2006ko ikerketa-lana zaharkituta gelditu ei da.

AUZOTARREN MESFIDANTZA. Otsailaren 14an emandako prentsurrekoan, leioaztarren iritzien berri eman zuen Mari Carmen Urbietta alkateak: «Sabino Arana kalea hobetzeko azken proiektua egin baino lehen Udalak bertako auzotarrakaz eta merkataria azken egindako bileren ostean, mesfidantza handia antzeman zuen euren aldetik, garraio publiko hau bertatik pasatzen zelako». Horrek hainbat ondoz ondoko batzar ekarri ditu Eusko Jaurlaritzak zuzentzen duen proiektuaren erakunde-arduradunagaz, gaur egungo



Sabino Arana kalean tranbia irudikatzen duen montajea. HODEI TORRES

Sabino Arana kaleko obrak

Tranbiaren proiektua alde batera utzi eta Sabino Arana kaleko obrak lizitazioari hasiera ematea erabaki du Leioako Udalak. Obrak hamabi hilabetez luzatuko direla aurreikusten da eta 4.055.860,66 euroko kostua edukiko dute.

egoerari irtenbide bat bilatzeko asmoz, eta horrela, EHuko campusa eta metro-geltokia lotzeko ahalik eta biderik egokiena bilatzeko epe zehatzean.

Bitartean, Leioako EH Bilduko bozeramailea den Aritz Tellitu pozik dago, «tranbiari alternatiba bilatzearen aldeotasuna gero eta onartuagoa» dagoelako Leioako udal-taldearen artean. Esnatu Leioako zinegotzia den Jose Ignacio Vicenteren ustez, berriz, «Avanzadako errepideagaz gertatu zen legez, tranbiak bitan zatituko luke Leioa». ◀



«Sabino Arana kaleko auzotarren eta merkatarien aldetik mesfidantza handia antzeman genuen, tranbia bertatik igaroko zelako»

MARI CARMEN URBIETA
LEIOAKO ALKATEA



«Leioak ez du horren azpiegitura garestirik behar. Gainera, udalerrria bitan zatituko luke, Avanzadagaz gertatu zen legez»

JOSE IGNACIO VICENTE
ESNATU LEIOA



«Guk defendatutakoak egia bilakatzen hasi dira: Sabino Arana oinezkoentzako egitea eta tranbiaren proiektuari alternatiba bilatzea»

ARITZ TELLITU
LEIOAKO EH BILDU

BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

«Kontsumitzen dena halako bi botatzen da»

Janari-zarrastelkeriaren arazoari aurre egiteko asmoz, Oreka proiektua garatu du Denis Ugalde Gómez gazte getxoizarrak. Horretarako, errestaurazio kolektiboko enpresen soberakinak behartsuenen artean banatzea izango da bere lehenengo pausoa.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Mundua hobetzeko asmoz, Zuzenbidea ikasi zuen Denis Ugalde Gomez gazte getxoizarrak. Denbora gutxian ohartu zen horrek ez zituela bere grinak asebetetzen eta, atzerrian bizi ondoren, proiektu propio bat sortzearen beharra sentitu zuen, betiere bokazio soziala oinarri hartuta. MBA bat ikasi zuen, ekintzaile gisa proiektu bat osatzeari ekiteko. Elikagai-zarrastelkeriari aurre egiteko proiektua abiarazi zuen 2017ko akabuan, arazo horren gaineko mugimendua sortu zen momentuan bertan: «Bartzelonan elikagai-soberakinaren donazioak erregularizatzeko herri-ekimen legegile bat aurkeztu zuten». Proiektu sozialak aurkezteko inizatiba bat egon zen garai horretan ere, eta horrek Oreka aurkezteko azken bultzada eman zion Ugalderei.

Zer da Oreka? Gizarte-erantzukizun handiko proiektua izan gura du, baina ikuspegi enpresarial batetik bideratuta. Helburua da gizartearentzat onuragarria izatea, baina, aldi berean, etekin ekonomikoak edukitzea, sostengarria eta denboran eskalagarria izateko. Ideia da elikagai-emaitzen eta erakunde hartzaileen arteko harremana kudeatzea. Sistema bat sustatuko dugu zaraman amaitzeko arriskua duten elikagaiak berreskuratzeko eta beharrezko diren tokietan entregatzeko.

Zuzenbidea ikasi duzu; nondik dator mota horretako proiektu bat garatzearen ideia? Gauzak hobetzen saiatzeko ikasi nuen Zuzenbidea. Bulego batean lanean hasi nintzen, baina berehala ikusi nuen proiektu propio bat garatu behar nuela benetako eragina izateko. Atzerrian bizi ondoren erabaki nuen nire proiektu bat garatu behar nuela, eta horregatik MBA bat ikasi nuen. Masterra hasi baino hilabete bi lehenago, gainera, Kenyara joan nintzen, boluntario-lanetan ibiltzeko. Hilabete eta erdi igaro nuen han, zibilizaziotik oso urrun zegoen herrixka batean. Han ikusi nuen oinarritzko premiak asegabe zeuden lekuetan ere posible zela Coca-cola bat eskuratzea. Orduantxe ohartu nintzen zenbait arazoren atzean ez dagoela baliabide-eskasia, baizik eta antolakuntza-falta. Etxera bueltatu ondoren elikagaien zarrastelkeriaren arazoarekin egin nuen topo, eta horren aurrean zerbait egin beharra zegoela esan nion neure buruari.

Badago arazo horri aurre egin gura dion bestelako proiekturik munduan? Bai, arazo horren berri izan eta berehala ikertzeari ekin nion. Hainbat egitasmo aurkitu nituen, eta horietako zenbaitekin ipini nintzen harremanetan. Berbarako, AEBetako San Frantzisko hirian badago enpresa bat elikagai-hondakinak kudeatzen dituena, modu errentagarri eta eskalagarrian. Zifra ikaragarriak lortzen ari dira gainera! Frantzia ere antzeko zer edo zer egin duenik ere badago. Hala, eredu horiek oinarri hartuta, negozioa gurera zelan egokitu zitekeen pentsatzeari ekin nion eta horrela sortu nuen Oreka.

500.000

EAEn milioi erdi pertsona bizi dira pobrezian edo bazterkeria egoeran. Hori dela eta, gizarte-laguntzak behar dituzte bizirauteko, hala nola jantoki sozialak eta elikagai-bankuak.

15.000 litro

Kilogramo bat behiki ekoizteko 15.000 litro ur inguru behar dira. Modu berean, elikagai-zarrastelkeriak sortzen du negutegi efektua eragiten duten gasen %10. Oreka proiektuak horri ere aurre egin gura dio, ingurumenaren alde egiteko.

%35

Orekari eta elikagai-soberakina berreskuratzeari esker, emandako elikagai horien balioaren % 35 desgrabatu ahal izango dute enpresek; «urtearen amaieran diru-kopuru handia aurreztu dezakete».

Legediak mugak ipin ditzake mota horretako egitasmo bat martxan ipintzeko orduan? Legedia oso lotuta dago honekin. AEBetako oso «ahula» da zentzu horretan eta hango elikagaien segurtasun legea ez da hemengoarekin konparagarria. Bertan, zuzenean, Uber sistemarekin egin duten bezalaxe funtzionatzen dute. Edonork publiko dezake interneten janari-soberakinak dituela, nor edo nor hurbilduko zaio horren bila eta eraman egingo du. Horrela eginen dituzte elikagaien lekualdaketak. Espainiar Estatuan, aldiz,

zirkuitu itxiak egin behar dira, tenperatura uneoro kontrolatuta dagoela, besteak beste.

Zer-zelakoak izan dira proiektuaren hastapenak? Hasiera batean, nik bakarrik abiarazi nuen proiektua. Hala ere, bidean aurrera egin ahala, elikagaiak birbanatzen duen Nutrición sin Fronteras Kataluniako GKEekin ipini nintzen harremanetan, euren bilketa-zirkuituen gainean informatzeko. Horretan oinarrituta lan egin nahi dut hemen, baina kutsu enpresarial batekin, sostengarria izan ahal izateko. Hasieran aholkularitza-harreman soila genuen arren, orain kolaborazio-harreman bat egitea aztertzen ari gara. Euren proiektuak behar duen baliabide teknikoak dituzte, berebizikoa dena; nik, aldiz, ikuspegi enpresariala ezarri nahi diot horri.

Zelan aurreikusten duzu elikagai horien birbanaketa egitea? Kataluniakoek egiten dutena da kontsumorako prest dauden elikagai denak izoztu, eta errefrigeratuta lekualdatzen dituzte, ondoren kontsumitu ahal izateko. Ideia da gurekin lan egiten duten enpresek euren elikagaiak izoztea, eta horren bolumenaren arabera hartze-sare bat osatzea. Asteaz bizpahiru aldiz batuko genituzke elikagai-soberakinak, ondoren behar dituzten hartze-zentroetara eramateko, hala nola jantoki sozialetara edo elikagaien bankuetara.

Hasieran jatetxeen eta hotelen elikagai-soberakinak kudeatzea aurreikusten duzu bakarrik? Bai, hori da. Errestaurazio kolektiboko enpresek hasiko ginatke. Horiek arduratzen dira ospitaleetako, erresidentzietako eta eskoletako menuak egiteaz, besteak beste; eta elikagai-bolumen handia darabilte. Enpresa horietako bakoitzak bere barne-prozesuak ditu, hala nola zaramaren kudeaketa. Hortaz, ikusi beharko dugu zein prozesutan sar gaitezkeen. Azken finean, *ad hoc* egin behar den lana da hori; enpresa bakoitza mundu bat da, eta proiektua horiei egokitu beharko dugu.

Enpresaren bategaz harremanik eduki duzu? Hainbatekin kontaktua izan dut. Oraindino ez diet negozio-eredua aurkeztu, baina soberakinak eta hondakinak zelan kudeatzen dituzten azaldu didate. Oso ondo hartu dituzte Oreka eta halako dinamikak.

Zeintzuk abantaila eduki ditzaizkete enpresek Oreka egitasmoagaz bat egiten badute? Elikagai-soberakina berreskuratzen dugunean, enpresek elikagai horien balioaren %35 desgrabatu ahal izango dute. Enpresek mila-kilo janari botatzen dituzte urtero, eta kopuru horren diru zati bat berreskuratzen laguntzen badiegu, urtearen amaieran diru-kopuru handia aurreztuko lukete. Guk soberakin horiek kudeatzea gatik kobratu egingo diegu enpresei, baina euren dirutza desgrabatu ahal izango dute. Gainera, zeharkako beste gastu batzuk ere murriztuko lituzkete, hala nola zaramaren kudeaketarenak. Modu berean, mota honetako egitasmoetan parte hartzen duten enpresek euren erantzukizun soziala areagotuko lukete, behartsue-

Nutrición Sin Fronteras



BCN comparteix el menjar

2012an sortutako proiektua da, Bartzelona metropolitarran elikatze-eskubide unibertsala bermatzeko helburuagaz.

Emaitzak

63 enpresak kolaboratzen dute GKE horregaz. 159 tona janari berreskuratu eta 954 tona CO2 isurketa murriztea lortu dute, besteak beste.

nei lagunduko lieketelako. Orekak zuzenean lagunduko die premia handienak dituztenei, zoritxarrez jende askok behar baititu gizarte-laguntzak bizirauteko. EAEn milioi erdi bat lagun inguru bizi dira pobrezia eta bazterkeria egoeran.

Modu berean, kontuan hartu behar dugu elikagaien berreskurbatzearen ingurumenean zer eragin dezakeen. Janaria botatzen dugunean horrek ondorioak dakartza ingurumenean, berbarako 15.000 litro ur inguru behar dira kilo bat behi ekoizteko, eta elikagai-zarrastelkeriak sortzen du negutegi efektua eragiten duten gasen %10.

Zein mailatan planteatzen duzu proiektua martxan ipintzea? Bizkaian proba pilotu bat egitea aurreikusten dut, enpresa gutxi batzuekin, negozio-eredua biribiltzeko, lan egiteko modua txukuntzeko eta sortzen diren zailtasunen aurrean irtenbideak aurkitzeko. Hori dena ondo irteten bada, den-dena eskalagarria eta erreplikagarria denez, aukera egongo litzateke bestelako erkidego batzuetara eramatea.

SaxoPrint lehiaketan aurkeztu zenuen duela gutxi Oreka, baina ez zenuen finalera heltzea lortu... Lehiaketako epaimahai batek egin zuen proiektuen lehendabiziko hautaketa, euren iritzien arabera. Ondoren, sare sozialen bidezko bozketaren bitartez hautatu zituzten finalistak. Proiektuetako sustatzaileok gure lanak sareratu behar izan genituen, botoak eskuratzeko, baina horretan hanka sartu nuen; ez dut oso ondo eraman proiektua mundu horietatik gizarteratzea eta finaletik hiruzpalau postura gelditu nintzen...

Aurrera egin beharra dago betiere, ezta? Bai, noski. Azken finean, egin beharreko pausoak dira horiek. Proiektu bat aurkezten duzu eta jendearen iritzia jasotzen dituzu, txarrerako zein onerako. Oso polita da, kasu batzuetan, ezagutzen ez zaituen jendeak animozko mezuak helarazten dizkizulako. Hori ikaragarria da. Ekintzaile izatea errusiar mendi batean ibiltzea bezalakoa da: egun batean oso ondo senti zaitezke, eta hurrengoan, aldiz, oso txarto. Hala, babesten zaituen jendea dagoela ikusteak aurrera egiteko indarra ematen dizu.

Zaila da gaur egun gaztea eta ekintzailea izatea? Bai. Esango nuke ekitea zaila dela beti, karrera korapilatsua da oso. Proiektu bat ezerezetik garatzeko ikaragarriko lana egin beharra dago, baita sakrifizioak ere. Norbaitek negozio-eredu bat garatzen duenean, badaki lehenago edo beranduago hori moldatu behar izango duela, merkatuaren eta gizartearen beharrezanetara egokitzeko. Bide luzeko lasterketa bat da, pasio eta mimo handiz, gutxika-gutxika forma hartuz doana. ◀



TRAVELLIN' BROTHERS | '13th Avenue South', disko berria

Eltze zaharrearantz



13th Avenue South

Magnolia Records, 2018

Hamar abestik osatzen dute disko berria: horietatik bederzti jatorrizkoak dira eta hamargarrena Robert Johnson abeslaria zenari egindako omenaldia da. Kantak ohitura zaharrei jarraituz grabatu dituzte: arima daukan aspaldiko estudio batean, denak batera areto berean.

Blues-seikoteak Nashville-n (Tennessee, AEB) grabatu du 13th Avenue South diskoa. © TRAVELLIN' BROTHERS

Otsailaren 23an zortzigarren diskoa plazaratu zuen Travellin' Brothers musika-talde leioztarrak; lan berria aurkezteko, gutxienez urte biko bira egingo dute Europa osoan eta Amerikan «anaia bidaiariak».

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Batek baino gehiagok pentsatuko zuen Leioako «anaia bidaiariak» akituta egongo zirela, *One day in Norway* (2016) diskoa aurkezteko urte biko bira egin ostean; ezta hurrik eman ere! Denbora horretan denean, hamabost herrialdetan 130 kontzertu eman zituen Travellin' Brothers taldeak. Hala ere, maletak desegin barik Nashvillera (Tennessee, AEB) abiatzea erabaki zuen blues-seikoteak: Brad Jones handiaren Alex The Great Recording estudioan grabatu zuten *13th Avenue South* lana, 2017ko azaroaren 20tik 30era arte; eta Jim DeMain-ek masterizatu du Yes Master Studios-en.

Kantak ohitura zaharrei jarraituz grabatu dituzte: arima daukan aspaldiko estudio batean, denak batera areto berean jotzen, ahotsa barne. Euren estiloari jarraituz, Amerikako erraietatik sortutako musikan barrena bidaia egitea proposatzen digute: bluesetik abiatuta, gospel, swing, jazz, folk, «zideco», «cajún», soul eta country estiloetatik igaroz, New Orleansko berezko doinuetan amaituz. Diskoa grabatzeko, bereziki,

Anaiak izan barik, arima bakarra daukate

Travellin' Brothers taldean, Canibaño abizena daukaten bakarrak Aitor (gitarra) eta Eneko (baxua) dira; Jon Kareagaz (ahotsa) ekin zioten bideari anaia leioztarrek. Ondoren batu zitzaizkien Isi Redondo (bateria), Ander Unzaga (teklatuak) eta Alain Sancho (saxofoia), bandari gaur egungo izaera emanaz.

musikari biren laguntza izan dute: Alex Schultz New Yorkeko gitarra-jolea eta Earl Thomas Tennesseeko abeslaria. Gainera, Nashvilleko musikaririk ezagunenek parte hartu dute hainbat abestitan. Besteak beste, Jamison Sevits-en tronpetak eta Josh Scalf-en tronboiak bizitasun handia ematen diote lan denari; Travellin' Brothers taldeko kidea den Alain Sanchoren saxofoiari batuta, haize-tresnek oso gozagarri egiten dute diskoa entzutea. Etta Britt abeslariaren ahotsa ere ez da oharkabean igarotzen, Robert Johnson abeslaria zenari omenaldia egiteko Jon Kareagaz eta biek interpretatutako *Last fair deal gone down* kantan. Bestalde, emakumezkoen ahotsen gospel-abesbatza irudikatzen aukera ematen du *Power of love* abestiak. Steve Conn akordeoi-joleak eta Brad Jonesek berak ere parte hartu dute diskoan.

MILA KONTZERTU. Euren zortzigarren lana entzunda, ez zaio nekerik nabaritzen Travellin' Brothers taldeari. Alderantziz. Inoiz baino indartsuago dator seikotea. Ez da gutxiagorako; izan ere, 2018 urte berezia da leioztarrentzat. Zenbakiei begiratzea besterik ez dago: aurten hamabost urte beteko ditu bandak, daborduko zortzi disko argitaratu dituzte eta milagarren kontzertua egingo dute laster. Hori dena ospatzeko beste urte biz ibiliko dira Europa osoan eta Amerikan, *13th Avenue South* aurkezten, euren izenari eta izanari ohore eginez; besteak beste, apirilean Suitza aldera joango dira. ◀

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

Taulatik bizikidetzaz bultzatzen



© PATATA TROPICALA

SOPELA | Antzerkia Patata Tropikala antzerki-taldeak *Kalean uso, etxean otso* ikuskizun familiarra aurkeztuko du domeka honetan, martxoaren 4an, Kurtzio kultur etxean. Hitzordua 18:00etan ipini dute; umeek 4 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek 6. Obra horretan, hainbat ipuin nahastu ditu Patata Tropikala antzerki-laboretegiak. Hala, bizikidetzaz berba egin gura dute. Antzezlanak 2 eta 12 urte arteko neska-mutuei zuzenduta dago; modu oso didaktiko eta errazean, gaur egungo gizarteak sufritzen dituen arazoak lantzen ditu.

Dantza

Martxoak 3, zapatua

Dantza plazan

20:00 | **Santa Eugenia plaza (Romo) | Getxo**
Agurra, Berantzagia, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola dantza-taldeakaz. Parte-hartzea libre.

Batzarrak

Martxoaren 1ean eta 6an

Getxo 24 ordu euskaraz antolatzeako batzar irekiak

19:00 | **Itzubaltzeta/Romo eta Algorta | Getxo**
Lehenengo bilera Romo Kultur Etxean egingo dute; eta bigarrena, Getxoko Euskalgintzaren Egoitzan (Martikoena, 16. Algorta). Parte-hartzea libre. Informazio gehiago: getxo@euskaraldia.eus

Erakusketak

Martxoaren 18ra arte

Sokatira 2014-2017

Rekalde Aretoa | Bilbo

Barriek 2018. Marta Zelaia urduliztarrak egindako tapiz handia ikusbide izango da. Sarrera, doan.

Ikastaroak

Martxoak 4, domeka

Sendientzako perkusio-tailerra

17:30 | **Danontzat gaztetxea | Plentzia**

Izen-ematea: txikiasanbladadanontzat@gmail.com

Musika

Martxoak 1, eguaztena

Jazz Ciudad

20:00 | **El Comercio taberna (Areeta) | Getxo**
Getxon Zuzenean kontzertuen zirkuitua. Doan.

Martxoak 3, zapatua

Libre jaialdia!

21:00 | **Txorimalo gaztetxea | Getxo**
Garrasika, Aukera Okerra, Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuak taldeek eta Prin-Tzi Djak joko dute. Sarrera: 4 euro. Algortako 9 lagunen kontra egindako epaiketaren gastuak ordaintzeko.

Martxoak 8, eguena

White Room Band (rocka)

20:00 | **The Piper's taberna (Algorta) | Getxo**
Getxon Zuzenean kontzertuen zirkuitua. Doan.

Zinema

Martxoak 4, domeka

Sagu eta Pagu

17:00 | **Areetako musika-eskola | Getxo**
Denontzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

Martxoak 6, martitzena

Les amours imaginaires

20:00 | **Kultur Leioako entzungela | Leioa**

Frantsesez, gaztelaniazko azpituiluakaz. Sarrera: 2,50 euro (16 urtetik gorakoentzat).

Martxoaren 8ko ekitaldiak

Berango

Martxoak 3, zapatua

19:00 *Baile en el sindicato* filma, Berango Antzokian. Pelikularen ekoizlea den Julen Lezamizek aurkeztuko du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 4, domeka

18:00 *Mundu berri. Nol?* ipuin-kontalarien saioa, Berango Antzokian. Apika taldeagaz. Euskaraz. Sarrera: 1 euro.

Erandio

Martxoak 2, barikua

18:30 *Un mundo nuevo* antzezlanak, Alzagako azoka zaharretan. Aiora Sedanogaz eta Xabi Ortuzarregaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 7, eguaztena

18:00 *Emakumeak = Kontatzen* ipuin-kontalarien saioa umeentzat, Alzagako udal-liburutegian. Ana Apikagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

Martxoak 8, eguena

12:00 Elkarretaratzea udaletxearen aurrean, eta ibilaldia, *Eskuen lorategia* izeneko lekura.

18:00 *Arte y mujeres: talentos ocultos* berbalak, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Gaztelaniaz. Doan.

Getxo

Martxoak 3, zapatua

11:00 *Estrategias feministas en crímenes de guerra y conflicto armado* berbalak, Getxoko Elkartegian, Areetan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 8, eguena

07:30 Emakumeen grebako elkarretaratzea, Bizkaiko Zubiko plazan.
12:00 Emakumeen grebako elkarretaratzea, Telletxen (Algorta).

Gorliz

Martxoak 4, domeka

Urbe Kostako Mankomunitatearen ekitaldi nagusia, kirol-pabiloian

10:00 Herri-kirolak, eskalada eta serigrafia (kamiseta eroatea beharrezkoa da) egiteko aukera egongo da.

12:00 Herri-kirolen erakusketa egingo dute hainbat emakumek.

13:00 Martxoaren 8ko adierazpena eta luntza denontzat.

Leioa

Martxoak 5, astelehena

18:00 *Mujer es poder* saioa, Andrak elkarretaren egoitzan (Sabino Arana, 78, behe). Maite Franko ipuin kontalariagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 7, eguaztena

19:00 *Admiración* antzezlanak, Kultur Leioan. Kafe Huts taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 8, eguena

11:00 Elkarretaratzea Boulevarden.

Plentzia

Martxoak 1, eguena

19:00 *Si no puedo perrear, no es mi revolución* berbalak, Danontzat gaztetxean. June Fernándezegaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 2, barikua

19:00 *Erradikalak gara* antzezlanak, Goñi Portal kultur etxean. Euskaraz. Doan.

Martxoak 3, zapatua

19:00 *Burbujas conservantes* antzezlanak, Goñi Portal kultur etxean. Diz-diz konpainiagaz. Gaztelaniaz. Doan.

Sopela

Martxoak 6, martitzena

17:30 Dantzen eta tarten lehiaketa, nagusien egoitzan.

Martxoak 7, eguaztena

18:00 *Goya y el pensamiento ilustrado* berbalak, Itzarturen egoitzan (Landa doktorea, 3). Adela Buenogaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Martxoak 8, eguena

12:00 Emakumeen grebako elkarretaratzea, udaletzeko plazan.

Urduliz

Martxoak 4, domeka

18:00 *Miro atrás y espero* antzezlanak, kultur etxean. Barrikako Emakumeen Hitz taldeagaz. Gaztelaniaz. Doan.

Bilbo

Martxoak 8, eguena

20:00 Emakumeen grebako Bizkaiko manifestazioa, Jesusen Bihotzetik.

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31



JUAN MARI

Harategia
Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Galtza motzetan

**ANA RAMOS
SARRIUGARTE**
Kazetaria

Nork moztuko dio burua herensugeari?

Otsailaren 22an San Mames inguruan gertatu ziren gertakizun deitoragarriek lerro-buru eta iritzi mordo sorrazazi dute. Baita irudiak telebistaz ikusi genituenok kezkarazi ere. Nola liteke futbol partidu bat ikustera joan eta mutur-joka bukatzea, batzuk odoletan, besteak atxilotuta... Bada, horiek guztiek ez zutelako futbol partidu batez gozatzeko inongo asmorik. Ez dezatela futbola, ezta politika ere, aitzakia moduan erabili. Ez daitezela milaka eta milaka lagun mugitzen dituen ekitaldi erraldoien itzalpean aritu.

Futbolaren aitzakian bazterrak nahasten eta kolpeka aritzen diren muturreko jarraitzaileek (jarraitzaile akaso, zale ez) ez lukete lekurik eduki behar, baina badaukate. Horrek hausnarketarako bidea eman behar digu, klubetatik abiatuta. Estadioetara sartzea eragotzi, bidaiatzea galarazi, isunak jarri... Horiek normalean gertakizun larrien osteko ondorioak dira. Hartu beharreko erabakiak, bai, baina gero, zer? Denborak, beste kasu askotan bezala, haserreak baretzen ditu eta erabaki-hartzeak moteldu. Beste tragediaren bat gertatu arte. Aitor Zabaleta, *Jimmy*, Sarriako harmailtan bengala batek jota hil zen haurra, Heysel... Biolentziak eragindako biktimak, sarriegi errepikatzen diren gertaerak.

Orain urte batzuk *hooligan* ingelesak zeuden begiz jota, gaur egun, aldiz, errusiar ultraeskuindarrak dauzkagu hizpide. Biolentzia mailak gorabehera, askoz ere gehiago daude, eta batzuk gertu-gertu. Nork moztuko dio burua sugeari? Non dago muga?

Beste kontutxo bat. San Mamesek errugbi final handiak hartuko ditu maiatzean, eta Bilboko kaleak jarraitzaile atzerritarrez gainezka izango dira. Ezetz ezer gertatu?

Denak barneratzeko errugbi-sendia



Dibertsitate funtzionala daukatenei eta ez daukatenei zabalik dago errugbi inklusiboa.

Joan den domekan topaketa egin zuten Faduran errugbi inklusiboan dabilzan euskal taldeek. Getxo Rugby Taldeak 2016an abiarazi zuen horren gaineko proiektua, Gaztedi eredu.

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Lehenengoz, Getxo, Bilboko unibertsitate-kluba, Gaztedi eta Hernani batera agertu ziren jendaurrean, erakustaldia emateko, Gaude eta Haszten elkartean laguntzagaz. Getxoztarrek nabarmendu zuten, aukera bikaina izan zen «errugbiaren balio nagusietako bat gorpuztuta ikusteko, hau da, taldean pertsona denentzako lekua dagoela berrestea».

Zelaian eta harmailan partiduak gogo eta poztasun handiz bizi izan zituzten. Asmoa ez zenez lehiatzea, ez zituzten egindako entseguak eta lortutako puntuak markagailuan islatu. Plakaketak ere kontu handiz egin zituzten; «inork ez diezaiola kirol honi beldurra hartu», Erlantz Getxoko jokalaria aitortu zuenez. Ondoren, hirugarren zatia ekin zioten, paellaren eta freskagarrien laguntzaz. *Urru* jokalaria azaldu zuenez: «Lehenengo kirolaz gozaten dugu, errugbiarekin eta adiskidetasunaz, bai jagoleena baita beste jokalaria ere. Gero hirugarren zatiaz, hori baita errugbiaren ezaugarria. Talde denak batzen gara eta partiduaz eta gure kontuez egiten

Jokalarien iritzia

«Oso zaila da, aurretik inoiz ez dudalako jokatu»

ADRIANA
GETXOKO JOKALARI BERRIA

«Gogoia edukitzea da garrantzitsua; hori badago, aurrera!»

URRU
GETXOKO JOKALARI BETERANOIA

«Parte hartu gura duena ondo hartu izango da sendian»

AITOR ARRI
EKIMENAREN SORTZAILEA

dugu berba». Errugbi-taldeak askotarikoak izan ziren, genero, adin, kirol-maila eta adimen- eta mugimen-gaitasunari dagokionez. Izan ere, errugbi inklusiboan mota denetako gaitasunak dituzten pertsonak jardun dezakete. «Oso gomendagarria da», nabarmendu zuen Fadurako klubak, alderdi fisikotik eta mentaletik egiten duen ekarpenagatik, eta dibertsitate funtzionala daukaten «pertsonen bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetzen dituelako».

Adriana jokatzen estreinatu zen joan den domekan. Getxoko jokalaria berriak «ametsa bete» zuen Faduran. Futbolaria da Gobelan eta errugbi-jokalaria ere izateko grina zuen, Getxo baita beraren «talderik gogokoen». Azpimarratu zuenez, «oso pozik nago nire taldekideakaz, asko maite ditut».

Aitor Arri Getxo Rugby Taldeko jokalaria eta ekimenaren sortzaileak adierazi zuen garrantzitsua dela domekakoa bezalako egunak izatea: «Entrenamenduak oso ondo daude, ondo pasatzen dugu, baina horrelako partidu-egunak heltzen direnean ikusarazten da aurretik egindako lan dena, egin ditugun lan-ariketa guztiak eta abar. Esan dezakegu ondo goazela apurka-apurka. Oso pozik gaude gaurko emaitzagaz». 2016an hasi ziren proiektuagaz, Gaztedin eta beste euskal taldeetan egiten ziharduten lanari jarraiki. Getxok euren erritmoa segitu du. «Lortu dugu errugbi-taldea osatzea. Gozatzeko eta lehiazteko gaude», azaldu zuen Arrik. ◀

JONE OLIBAN LIZARRAGA | Arraunlari lemoiztarra

«Bizkaian trainerurik ez zegoelako joan nintzen»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Jone Oliban (Lemoiz, 1992) Euskotren Ligaren hasieratik ibili da arrauneko maila nagusian. Hasieran *Bizkaia* traineruko tostan jardun zuen, eta ontzi hori lehorrean geratu zenetik, Errenteriako Hibaika klubean. Emakumeen Traineruen Elkarte (ETE) sortzen ibili ondoren, Bizkaira bueltatu da: Arkoten batelari eta Deustun arraunlari ibiliko da.

Hibaika utzi duzu. Zer dela-eta? Hibaikan ziklo-amaiera bat izan da: ni hasi nintzenez taldeko batzuk uzten hasi ziren eta proiektu hori amaitzen zebilen, nahiz eta Hibaikak neskakaz lanean gogor segitzen duen. Gainera, ikusi nuen beti defendatu dudana Bizkaiko emakumeen arraunean lanean zeudela. Uste dut une ona zela Bizkaian, nire herrian, lan egiteko.

Zertan zabilta? Arkoten nabil bateletan, batelari eta entrenatzaile. Udan Deustura joango naiz traineruan arraun egitera. Betidanik ibili naiz bateletan Bizkaian, eta urteak eman ditut udan traineruan Gipuzkoan; urte hauetan guztietan kexatu naiz Gipuzkoara joateko arrazoiak: Bizkaian trainerurik ez zegoela. Orain hemen traineruak egonda, hemen egon gura dut.

Bizkaia traineruaren falta sumatu duzu? Eman beharreko pauso bat izan zen, baina ezin zen horretan gelditu. Balio izan zuen traineruan hasi ahal izateko, baina honetara heldu behar genuen: klubek euren traineruak ateratzera.

Emakumeen Traineruen Elkarte (ETE) sortu berri dute 14 klubek. Iniziatiba oso ona da. TKEk pauso handia egin zuen Euskotren Liga sortuta, baina gaur egun dagoen traineru-kopuru handi bat ez dago hor. Eta Gipuzkoako Federazioak bertako liga antolatu izan du, ahal izan duen hoberen, baina beharrezkoak ziren gutxiengoak bete barik: estropaden egutegia desorekatuta geratzen zen, arraunerako eremuak ez ziren egokienak... Elkarte berrian saiatuko gara kalitatea bermatzen.



Bizkaia trainerua desagertuta, Olibanek aukera bi eduki zituen: «Arrauna uztea ala udan kanpora joatea». HO DEI TORRES

Lehia eta harrobia sustatu gura dituzte

Jone Olibanek ohartarazi du Emakumeen Traineruen Elkarte dela-eta jende askok «espektatiba handiak» dauzkala: «Segur aski ez dira guztiz beteko. Debate handia egon da, liga bakarra ala liga bi; zelan egin, zelan ez; oso zaila da ezer antolatzea. Argi eduki behar dugu elkarte sortu dugula emakumeen traineru-lehiaketan onurarako eta klubetan neskek errazago arraun egin ahal izan dezaten».

Hurbiletik ezagutu duzu sortze-prozesua. Bai, hasierako elkarriketara arraunlarien ordezkari legez joan nintzen, ni ez naiz klub bateko zuzendaritzako kidea. Bertan nabil.

Zer onura ekarriko du KAE-1en pareko lehiaketa bat egiteak? Lehenengoa da estropada-eremuen kalitatea bermatzea: leku denetan lau kale egotea, fitxen kontrola denek pasatu ahal izatea, eta lehiaketari beste maila bat ematea. Gipuzkoakoan ez zegoen aurrekonturik, ez zegoen epailerik... federazioak baliabide gutxiagok antolatutakoa zelako. Balia dezakegu KAEn eskutik joango garela. Horrek bidea erraztuko digu.

ETEn hiru klub bizkaitar daude: Deustu, Kaiku eta Lea-Artibai. Ate gehiago zabalduko die horrek Uribe Kostako arraunlariei? Gustatuko litzaidake baietz pentsatzea. Ni Hibaikara joan nintzen Bizkaian ez zegoelako aukerarik arraun egiteko. Orain, hiru klub dira. Gero eta gehiago egoteak ekarri behar du neska gehiagok arraun egitea eta errazago izatea.

Lutxanak, Arkotek, Raspasek eta Getxok beste zerbait egin dezakete norabide horretan? Saiakerak egon dira. Getxo aurretan saiatu da trainerua ateratzen, baina ezin izan du. Arkotek ez du eduki udan ateratzeko asmoa baina Orioko jaitsierara bai eroan du trainerua... Raspas nesketan eskasago ibiltzen da, jaitsierak edukitzen ditu baina... Lan egiten dabilta klub horiek. Ikusiko dugu helburuetara helduko diren. ◀



nire aitaren etxea defendatuko dot

ERROMON
1977. ETIK

GURE
ETXEA
taberna

Caja de Ahorros, 14 | Romo-Getxo | T. 94 463 68 80

f Gure Etxea Taberna | eEtxeGure

Uribe Kosta elurpean
Argazki-galeria ikusteko:



IKER RINCON MORENO



IKER RINCON MORENO



HODEI TORRES

IRUNE URTIARTE



HODEI TORRES

AMALIA GALINDEZ



PAULA ODRIOZOLA

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetaña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Producciones Serranori esker, Phil Cunningham & Aly Bain artisten kontzerturako sarrerak zozkatuko ditugu

Martxoaren 11n (domeka) Bilbon egingo den kontzertuaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, martxoaren 6a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Otsaileko saria



AnimaTe Getxo komertzioari esker, infusio bero-beroak hartzeko sorta

Komertzio horren ekimenez, sari hau zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali martxoaren 31 (zapatua) baino lehenago zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|--|---|---|---|
| | 2 | | | | | | 9 | |
| 3 | | | 7 | | | | | |
| 8 | | | 6 | 4 | | | | |
| | | 4 | | 1 | | 5 | | |
| | | | | | | | 8 | 6 |
| 2 | | | | 3 | | | | 1 |
| 7 | | | 1 | | | | 3 | 4 |
| | 3 | | | | | | | |
| | | 1 | 5 | 7 | | 8 | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 8 | 3 | | 1 | | 6 |
| 3 | 8 | | | | | | | 4 |
| | | | | 6 | | | | |
| | 6 | 3 | | | | 9 | | |
| | | 5 | 3 | | | | | |
| 1 | | | | 9 | 4 | | | |
| | | | | 1 | | | | 5 |
| | | | 4 | 2 | | 6 | | 9 |
| 8 | 1 | | | | | | 2 | |

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 9 | 2 | 3 | 5 | 4 | 1 | 6 | 8 |
| 5 | 3 | 4 | 2 | 7 | 6 | 8 | 1 | 9 |
| 6 | 7 | 2 | 9 | 1 | 8 | 4 | 5 | 3 |
| 1 | 2 | 8 | 6 | 9 | 4 | 7 | 3 | 5 |
| 7 | 9 | 5 | 3 | 8 | 1 | 6 | 4 | 2 |
| 4 | 6 | 3 | 7 | 5 | 2 | 9 | 1 | 8 |
| 2 | 5 | 1 | 4 | 6 | 7 | 3 | 8 | 9 |
| 3 | 8 | 6 | 1 | 2 | 9 | 5 | 7 | 4 |
| 9 | 4 | 7 | 8 | 3 | 5 | 1 | 2 | 6 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 6 | 1 | 5 | 7 | 3 | 8 | 2 | 9 |
| 8 | 3 | 6 | 4 | 7 | 1 | 5 | | |
| 7 | 5 | 2 | 1 | 9 | 8 | 6 | 3 | 4 |
| 2 | 7 | 5 | 8 | 3 | 6 | 9 | 4 | 1 |
| 1 | 9 | 3 | 4 | 5 | 7 | 2 | 8 | 6 |
| 6 | 8 | 4 | 9 | 1 | 2 | 5 | 7 | 3 |
| 8 | 1 | 7 | 6 | 4 | 9 | 3 | 5 | 2 |
| 3 | 4 | 9 | 7 | 2 | 5 | 1 | 6 | 8 |
| 5 | 2 | 6 | 3 | 8 | 1 | 4 | 9 | 7 |

Hitza emanda

Greba

Neskok lan esparruan zein lanetik kanpo ez gaituztenez inoiz hartuko aintzako, greba antolatu da hilan 8rako mundua aldatzeko; munduari planto!



IRENE EZKURRA ERIZ
Algorta



Sukaldean **Portu Zaharra** taberna

Ehunka pintxoko eskaintza zentzumenak asebetetzeko



Portu Zaharra taberna

Portu Zaharra, 35
ALGORTA

94 460 20 33

portuzaharra@
portuzaharra.com

Erraz topatuko duzu
Algortan oso ezaguna
den taberna hau.
Portu Zaharreranzko
eskailerak jaitsita,
ezkerrean dagoen ate
berdeduna da. 9:30ean
zabaltzen dute egunero.



TESTUA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Zenbat jendek ez du gozatu nozbait, zapatu edo domeka goiz batean, Portu Zaharreko pintxopoteaz? Garagardo freskoa eta txibierroak, edo ardo beltza olibakaz. Baina ez da hori, noski, eskura daukagun aukera bakarra. Portu Zaharra tabernako barran, esate baterako, hamaika jaki daude. Neguan 150 pintxo mota inguru prestatzen dituzte sukaldariek, udan 400 eta 500 bitartean. Beganoentzat ere badaukate eskaintza. Txapela kentzeko modukoa!

Argazkian ikus daitekeena da ehunka pintxo horietako bat: barazki erreak. Prestatzeko, lehenik eta behin, barazkiak (tipula, berenjena eta piper gorria) zuritu, txikitu eta su motelean egin ditugu. Bestetik, zartagin batean, berakatz ipini dugu oliotan. Osagai guztiak prest daudenean, denak nahastu eta salteatua egin dugu. Bestalde, gazta-teila egiteko roquefort triangela eba-

Barazki erreak

Osagaiak:

- Tipula
- Berenjena
- Piper gorria
- Roquefort gazta
- Artoa
- Berakatz

ki, artoa txikitu eta biak ogi-birrinetan pasatu ditugu. Prest daude barazki erreak! Platerean ipini eta gazta-teila gehitzea besterik ez da falta. Hau bai tripazorra!

Pintxoek edari batek lagunduta joan behar dute, nahitaez. Horrenbestez, garagardoa, freskagarria, ardoa, txakolina edo maria-nittoa hartu eta eskaileretan jesarriko gara, aurrean dugunaz gozatzeko. Gure dastamena asetzeaz gain, gainerako zentzumenak ere gogobetetzen dira-eta Portu Zaharrean. Kostaldeko paisaia, itsasoaren soinua, udaberriko egun batean eguzki-izpiek azala laztantzean eragiten duten sentsazioa... Ezin deskribatu, bide bakarra zuk zeuk bizitzea da.

Getxoztarra edo ingurukoa bazara, oinez hurreratu zaitezke Portu Zaharrera. Eta gainerako uribekostarrantzat aparkaleku eskerge dago auzoaren beheko aldean, eta metroz edo txirrindulaz ere joan daiteke Algortara. Edozein momentu da egokia, asteleheneetik domekara, 9:30etik. ◀

egizu GARAGARDOA etxean!
ikastaro - mintegi praktikoa
+ dastaketa + hamaiketakoa

www.etxeandia.biz



ETXEANDIA GARAGARDO FABRIKA URDULIZ MARTXOAK 10 10:00-14:00 25€